

NOLA KENDU UME BATI IRAKURTZEKO GOGOA



Egun hauetan bibliotekaria den Edgardo Civalloren idatzi bat iritsi da nire eskuetara. Bertan zortzi pauso aipatzen ditu ume batek irakurketa gorrotatzeko:

1. Gorde itzazu liburuak bere eskuetatik urrin. Asko ukitzen baditu suntsitu ahal ditu, batez ere liburuak fin horiek edota irudi-album eder horiek.
2. Ez iezaiozu irakur liburu bat baino gehiago astean. Bestela, irakurketaren mendeko bihur daiteke. Gainera, irudimena elikatzeke baditu telebista, bideo-jokoak edo mugagabea den unibertso digital hori.
3. Ez irakurri inoiz ere ume baten aurrean. Bestela, eredutzat har zaitzake, baita imitatzeke gogoia izan ere. Eta agian irakurtzea plazerra dela pentsa dezake, bakarrik ikasteko beharrezkoa denean.
4. Debeka itzazu irakurketa txar guztiak. Ez izan beldurrik ezta errukirik ere umeari interesa pizten dioten istoriotxoak, aldizkariak edo umore kutsua duen edozein liburu kanporatzeko: liburu onei garrantzia kenduko liekete.
5. Egin umeari galderak sarri, irakurri duen guztia zuzen ulertu eta buruz ikasi duen egiaztatzeke.
6. Umeak irakurtzen ikasten duen unetik bertatik utzi istorioak kontatzeari: bere kabuz irakur ditzake eta.
7. Behartu egunean gutxienez hamar orrialde irakurtzera, eta bakarrik zuk aukeratutako liburuak: ondo idatzitako liburuak, eduki serioak dituztenak eta balore onak erakusten dituztenak.
8. Eta azkenik, derrigortu hasten dituen liburuak amaitzera... jateko guztia amaitu behar duen arrazoi berdinegatik: liburuak ez dituzten ume pobreak daudelako!